

JUAN JOSE MOGEL EN MENDEURRENA

JUAN SAN MARTIN

Juan Jose Mogel eta Elgezabalen mendeurrenaren ospaketa hautatu zuen Euskaltzaindiak dialektologiako lehen ikastaroak egiteko. Eta, izatekotan ere, non hobeto Bizkai-Gipuzkoako euskalkien muga eta Juan Jose Mogelen sorteri den Deban baino?

Justo Garatek *La época de P. Astarloa y J. A. Mogel* deritzan liburuan, Juan Joseren jaioterria non zen argi utzi bazuen ere, gure artean erabaki ahal direnak ere eztabaidatzeko joera dugunez, zenbaitek zalantzan jarri izan dute mundura etorri zen herria. Honegatik, L. Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan zalantza horren berri ematen digu. Baina, agerriak diotenez, gaur egun ez dugu zalantzan jartzetik, Juan José Deban jaio zen 1781eko apirilaren 26an.

Bere aita, aitona bezala, medikua zen eta zenbait herritan bete zuen bere profesioa. Beraz, Deban egin zituen urteetakoa dugu Juan Jose idazlearen sorrera.

Juan Jose, *Peru Abarka* liburu ospetsua idatzi zuen Juan Antonioaren iloba zen eta Bizentaren neba. Bizenta ordea, urte bete gazteagoa, Azkoitin sortua zen.

Neba-arrebok idazle ziren; euskal idazle ziren aldetik osabaren irakaskintzetatik ikasiak. Bizentak Esoporen alegiak euskaratu zituen eta *Ipui onak* izenburuz argitaratu (1804); horrez gainera zenbait Gabon kanta ere idatzi zituen. Baina, gaurko hontan Juan Joseren berriak soilki emango ditugu.

Bere osaba bezala, apaiz egin zen eta arbasoen Markina-Xemeinen eman zituen urterik gehienak, 1811. urtetik 1849ko uztailean 20an hil arte.

Goi-mailako ikasketak, apaiz egin ondoren noski, Oñatiko Unibertsitatean osatu zituen. Osabaren antzera, jakintzaz aberats zen eta ondasunez pobre. Euskaltzale suharra zen. Antza denez, sermoi asko idatzi zituen euskaraz apaiz gazteagoei emateko, hauek sermoilaritzara zaletzeko, eta horregatik bere lanik gehientsuena barreiatu gelditu zen, inprimaturik gabe. Inprimaturik artean hiru liburu ezagutzen ditugu. Hauetatik bat bere izen gabe eta beste bat hil geroztik argitaratua. Hiru liburuok Markina inguruko bizkaieraz idatziak daude.

Lehenengoa, *Baserritar nekezaleentzako eskolia*, Bilbon 1816an argitaratua eta geroztik beste zenbait argitaraldi izan zituena. Liburu hau, Gregorio Arruek gipuzkeraz ipini zuen eta Tolosan argitaratu 1878an. Guraso baten nekazari bizitza adierazten du, eleberri gisara idatzia. Aita bat eredu dela seme-alabekin elkarriketan jarriz. Garaiko semea zen eta gainera apaiza, beraz, gaurko pentsaeratik aski urruti aurkitzen badugu ere, orduko pentsa-molde eta biziera ezagutzeko irakurgai garrantzitsua deritzagu.

Bigarren liburua, *Egunoroko lan on eta erreguak* (1820), hau ere zenbait aldiz argitaratua, predikuz ari da bertan, eta lehen liburuko euskara aberatsa badu ere, bigarrenean oraindik aberatsagoa du. Hizkuntza joriaz gainera, esaldiz ondo hornitua eta hitzez ta aditzez ugaria. Frai Bartolomeren lanekin batean bizkaierazko literaturan goren mailetan jartzekoa dugu.

Hirugarrena, *Maiatz-illerako berba-aldiak* (1885) urte bete lehenago gipuzkeraz argitaratua izan zen, Tolosan bertan. Maiaztean eguneroko hitzaldigintzarako gertatua da, eta euskarazko idazkera bera jarraitzen du.

Juan Jose, euskaltzale borrokatuaz gainera foruzalea zen eta Karlisten gerratean Bizkaiko diputatu edo piel izendatua izan zen. Honegatik, gerra bukatzean deserritua izan zen.

Osaba hil geroztik *Peru Abarka*-ren esku-ekribua berak gordetzen zuen eta bere eskuz joan zen Aita Untzueta frantziskotarra. Honek, Zarautzko komentuan utzi zuen eta han gordetzen da oraindik. Amanuenseak kopiaturik zenbait esku-ekribu badira, baina 1881eko lehen argitalpena Zarauzkotik egina da.

Osabaren irakaspen ona nabarmen agertzen da ilobagan eta bere euskarak ez dio zorrik, lehen irakatsia eta bidea markatzearena baizik.